

# Ze barri

Mallabiko Udal Aldizkaria

1 zeb. 2007ko abendua



# Udal batzordeak

Maiatzaren 27ko hauteskundeetan aukeratutako 9 zinegotziek ekainaren 16an egin zuten kargu hartze ekitaldia. Era honetan adostu zituzten udaletxeko ardurak hurrengo lau urteetarako:



Aitor Loiola Zinkunegi  
Oihana Onaindia Urizar  
Oier Madariaga Mugarza  
Manu Riaño Gabilondo  
Aintzane Aranburu Barrena



Jose Ramón Olalde Aguirregomezcorta  
Pili Garitagoitia Milikua  
M<sup>º</sup> Luz Asumendi Mallabiabarrena  
Igor Agirre Barrietos

Alkatea: Aitor Loiola Zinkunegi  
Lehen Alkate ordeak: Oihana Onaindia Urizar  
Bigarren Alkate ordeak: Oier Madariaga Mugarza

## HIRIGINTZA ETA INGURUNE BATZORDEA

*Urbanismo y Medioambiente*

Batzorde burua: Manu Riaño Gabilondo  
Aitor Loiola Zinkunegi  
Oier Madariaga Mugarza  
José Ramón Olalde Aguirregomezcorta  
Igor Agirre Barrietos  
[Ordezkoak / Suplentes](#)  
Oihana Onaindia Urizar  
Pili Garitagoitia Milikua

## KONTUETARAKO BATZORDE BEREZIA

(kontuak eta pertsonaleko batzorde iraunkorra)  
*Cuentas y Personal. Comisión permanente de cuentas,  
comisión especial de cuentas*

Batzorde burua:  
Aintzane Aranburu Barrena  
Aitor Loiola Zinkunegi  
Oihana Onaindia Urizar  
José Ramón Olalde Aguirregomezcorta  
M<sup>º</sup> Luz Asumendi Mallabiabarrena  
[Ordezkoak / Suplentes](#)  
Oier Madariaga Mugarza  
Igor Agirre Barrietos

## GIZARTE ONGIZATE BATZORDEA

*Bienestar Social*

Batzorde burua: Oihana Onaindia Urizar  
Aitor Loiola Zinkunegi  
Manu Riaño Gabilondo  
M<sup>º</sup> Luz Asumendi Mallabiabarrena  
Pili Garitagoitia Milikua  
[Ordezkoak / Suplentes](#)  
Aintzane Aranburu Barrena  
José Ramón Olalde Aguirregomezcorta

## KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROL BATZORDEA

*Cultura, educación y deporte*

Batzorde burua: Oihana Onaindia Urizar  
Aitor Loiola Zinkunegi  
Oier Madariaga - Mugarza  
M<sup>º</sup> Luz Asumendi Mallabiabarrena  
Pili Garitagoitia Milikua  
[Ordezkoak / Suplentes](#)  
Manu Riaño Gabilondo  
Igor Agirre Barrietos

## AUZO BATZORDEA

*Comisión de barrios*

Batzorde burua: Oier Madariaga Mugarza  
Aitor Loiola Zinkunegi  
Manu Riaño Gabilondo  
Igor Agirre Barrietos  
Pili Garitagoitia Milikua  
[Ordezkoak / Suplentes](#)  
Oihana Onaindia Urizar  
José Ramón Olalde Aguirregomezcorta

## PARTE HARTU

*Si quieres participar*

Batzorde hauetan parte hartu nahi izanez gero, hilero edo komenigarria den neurrian batzar batzuk egiteko asmoa agertu dute zinegotziek. Era honetan, Bando bidez emango da batzar hauen berri.

*Si quieres participar en estas comisiones, se harán unas reuniones cada mes o cuando sea necesario. Se avisará mediante un Bando sobre estas reuniones.*

# Sarrera

## Herritarrok agur:

2007ko maiatzaren 27ko udal hauteskundeen ondoren herritar guztiok aukeratu zenuten eta datozen lau urteetarako sortu den udal taldea ekainaren 16an osatu zen. Udala herriarena izaki, talde honek hasiera hasieratik beharrezko eta garrantzi handikoa ikusten zuen herritarren informazioarako aldizkari bat sortzea. Udal taldeko ordezkari eta herritar batzuen borondatezko lanaren ondoren ikusi du argia esku artean duzun lehen zenbaki honek.

Aldizkari honekin herritar guztiei informazioa ematea da Udal Taldearen helburua, baina baita zuen, herritarron kexa, iradokizun, proposamen, ideia eta abar jasotzea ere. Berez bederatz badira ere Udal Talde hau osatzen dutenak, herritar guztiok osatzen dugun herria gara eta bakoitzak bere alea ematen du ganbarako gari piloa handitzeko: herriaren on, aberastasun eta garapenerako.

Lerro hauetatik animatzen zaituztegu komunikazio batzorde honetan parte hartzera. Udaletxera bertara jo dezakezue zuzenean, bertako iradokizun eta kexa postontzia erabili, Kultur Etxeko gelara joan martitzenetan arratsaldeko 7retatik 9etara bitartean edo:

[komunikazioa.mallabia@hotmail.com](mailto:komunikazioa.mallabia@hotmail.com)

Helbide honetara idatziz zuen hitzak aintzat hartzen saiatuko gara.

## Estimados amig@s:

*El grupo municipal que fue elegido el 27 de mayo del 2007 por voluntad popular tomó posesión de su cargo el 16 de junio. Este nuevo grupo municipal considera que el Ayuntamiento no es un ente abstracto, indefinido sino que es una institución del pueblo y que es su obligación informar en lo posible de lo que acontece en dicha institución. Así ha surgido la idea de crear esta pequeña revista. Lo que ahora tienes entre manos es el fruto del trabajo voluntario de dichos representantes municipales.*



*Así pues el principal objetivo de esta revista es proporcionar información al pueblo de Mallabia; también recoger vuestras sugerencias, quejas, proposiciones, ideas, etc. Aunque los representantes municipales seamos nueve, Mallabia la construimos entre todos los habitantes del municipio y cada una de las 1164 personas que la formamos aportamos nuestro granito de arena para el bien, enriquecimiento y desarrollo de Mallabia.*

*Desde estas líneas os animamos a todos a que toméis parte en esta comisión de comunicación. Podéis dirigiros al propio Ayuntamiento, utilizar el buzón de sugerencias que hay en el exterior del mismo o escribir a la siguiente dirección de correo electrónico:*

[komunikazioa.mallabia@hotmail.com](mailto:komunikazioa.mallabia@hotmail.com).

*Nos esforzaremos al máximo para que se tenga en cuenta vuestra palabra.*

Iruatxeta baserriko lurretan aspaldidanik dago martxan Betearte izeneko isurtegia, 12 urte daramatza jardunean zehatz esateko. Isurtegi honek gaur egun arte zabor inerteekin egin izan du lan.

Urte gutxi barru, baina, hondakin arriskutsuen biltegi bihurtuko da. Promotorea Betearte izango da, orain arte legez izena bere horretan mantenduko dute. Berez kapitala jartzen duena, baina, AGB Sistemas Medioambientales S.L. da, egoitza Bilbon daukan enpresa.

## Legea eta baimenak

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak hala erabakita, baimen guztiak ditu Beteartek bere proiektuarekin aurrera jarraitzeko. Bizkaiko Diputazioari eta Mallabiko udaletxeari zegozkien baimen guztiak ere legearen barruan ditu proiektu honek.

Bere garaian, Beteartek proiektua aurkeztu zuenean, alegazio bi aurkeztu ziren; batetik, alternatibarik ematen ez zela salatu zen, beharrezkoa baita proiektua beste era batera izateko aukera ematea; eta bestea, hirigintzaren bateragarritasun txostena falta zen. Azken honetan, Udaleko arkitektoak txosten bat egin beharrean (herrian izango duen eragina, zer distantziara dagoen herri gune eta baserrietatik, eta abar) arau subsidiarioen aldaketa puntual bat besterik ez zen bidali. Horrela, Ingurumen Sailak onartu zuen eta proiektua aurrera doa.

## Zer egin daiteke?

Maiatzeko hauteskundeen ondoren eratutako udalbatzak, obrak hasteko lizentzia eman zien beste aukerarik ez zeukalako. Ingurumen Sailak baimen guztiak eman ondoren, gaur egun Udaletik erabaki hauen aurka egiteko erarik ez dago. Obra hori legala da, Udalak Udal bezala obra horren kontra egingo balu legearen kontra joango zen eta bere ondorio kaltegarriak jasan beharko lituzke.

## Proiektua

Iruatxeta zabortegeiak 12 hektarea izango ditu. Euskal Herrian dauden era honetako beste zabortegei biek 3 eta 4 hektarea dituzte. Honen neurriak ikaragarriak dira, beraz.

## 1- Zabortegeiaren inpermeabilizazioa eta gainazaleko isurbideen instalazioa.

Depuradora bat eta bi depositu egingo dira zabortegeiak isurtzen dituen likidoak jasotzeko (lixibatuak). 30 metroko horma eraikiko da. **Azpialdean 99 metroko luzera eta goialdean 187,50 metrokoa izango du.** Horma hau lehen faseko lur eta obra-hondakinekin egingo da.

## 2- Inerteen zabortegeiaren egokitzapena

Hondakin ez-arriskutsuen zabortegeia egiteko beharrezkoa da oraingo inerteen zabortegeia zigitatzea eta egokitzea. Horretarako beharrezkoa da bere gaina lautada trinko eta homogeen bihurtu behar da. **224.506 lur eta obra-hondakin aterako dira** eta Artia erreka sedimentu-kutsadura handia jasango du.



## 3- Zabortegeiaren inpermeabilizazioa eta gainazaleko uren isurbidearen instalazioa

### 4- Iruatxeta zabortegeian bota daitezkeen hondakinak:

- 81 hondakin mota
- 28 lokatz klase
- Errautsak, zepa, hautsak, erretxinak

Zabortegeia zigitatu eta itxi ondoren, hurrengo 30 urtean ingurunea zaintzeko plan bat behar du likido toxikoak isurtzen jarraituko delako.

### Iruatxeta zabortegeiaren kokapena:

Biritxinaga baseritik	240 metrora
Ariño baseritik	350 metrora
Usatorre baseritik	510 metrora
Arietzu auzotik	550 metrora
Kaskotik	700 metrora
Bitoita baseritik	780 metrora
Areitio auzotik	1.000 metrora

Zabortegeia 16 urtean beteko da, gutxi gorabehera. 70.000-100.000 tona hondakin isuriko dira, guztira **1.318.305 m<sup>3</sup>**, gehienak toxikoak. Ez da ezagutzen zabortegeiak isuriko dituen gasak eta usainak zein neurritan eragingo dion Mallabiko herriari.

## AURREKONTUAREN LABURPENA

1. LURRAK MUGITZEA 1.725.234,00 €  
Movimiento de tierras
  2. LIXIBIATUEN DRAINATZEA 281.640,62 €  
Drenaje de lixiviados
  3. UR GARBIEN DRAINATZEA 103.187,50 €  
Drenaje de aguas limpias
  4. IRAGAZGAIZTATZEA 1.520.120,00 €  
Impermeabilización
  5. HESI BERDEA 823.577,85 €  
Muro verde
  6. BIDEAK 124.616,00 €  
Viales
  7. ZIGILATZEA 2.300.967,00 €  
Sellado
  8. AZPIEGITURAK 1.162.734,06 €  
Infraestructuras
  9. SEGURTASUNA ETA OSASUNA 17.000,00 €  
Seguridad y salud
  10. KALITATE KONTROLA 50.000,00 €  
Control de calidad
  11. ASERVICIOS AFECTADOS 490.000,00 €  
GUZTIRA 8.599.077,03 €  
Total ejecución material
- %13 GASTU OROKORRAK 1.117.880,01 €  
Gastos generales
- %6 IRABAZI INDUSTRIALA 515.944,62 €  
Beneficio industrial
- GASTU ETA IRABAZIEN BATURA 1.633.824,64 €  
Suma de gastos y beneficios
- %16 B.E.Z. / I.V.A.: 1.637.264,27 €



Trabakua inguruan dagoen Zuberri lursailean Grupo Eibar eraikuntza enpresak inerteen zabortegi berria eraikitzea ez du baimenduko Udalak. Ondorengo lerroetan duzue gai honen inguruko informazio zehatza eta isurtegi hau ez egitearen arrazoiak.

## **Arau Subsidiarioen aldaketa**

2006ko Abenduaren 19an Udal Osoko Bilkuran onartu zen Udal Plangintzako Arau Subsidiarioak aldatzea. Aldaketa hau Zuberri inguruan dagoen lursail bat Lurralde Azpiegituretako Sistema Orokorrean kokatu ahal izateko gauzatu zen. Lursail honetan zabor inerteen kontrolatutako isurtegia eraikitzea erabaki zen eta jendaurrean aurkeztu bazen ere, herritarrek ez zuten jakin Arauen aldaketa hori emango zenik.

**Grupo Eibar** da isurtegia egiteko asmoa duen enpresa eta ingurumenean izan dezakeen eraginari buruzko aurretiko txostena egin

zuen enpresa honek. Udalak txosten hau onartu zuen eta 2007ko maiatzaren 18ko Udal Osoko Bilkuran arau subsidiarioetan aldaketa puntuala egitea onartu zen. Behin behineko onarpenerako proposamena, Zuberri inguruan dagoen lursaila Lurraldeko sistema orokor eta azpiegitura bezala sailkatzeko, hondakin inerteen zabortegi kontrolaturako onartzen da. Sei hilabeteko epea dago aldaketa hau definitibo izateko Diputazioaren aldetik.

Maiatzeko udal hauteskundeen ondoren osatu zen **Udal Talde berriak, Maiatzaren 18an Arau Subsidiario horien erabakia atzera botatzea** onartu zuen.

Uztailaren 17an Batzorde informatibotik pasa eta Udal plenoan onartu zen arau subsidiarioen aldaketa hau lehengora bueltatzea. Diputazioari jakinarazi zitzaion hartutako erabakia eta espedientea bueltatu zuen Udaletxera hilaren azkenean



## **VERTEDERO DE ZUBERRI Antecedentes**

### **Normas Subsidiarias:**

**19 de diciembre 2006.** Se aprobó en reunión del Pleno del Ayuntamiento, una propuesta para que las tierras pasasen a formar parte del Sistema General de Infraestructuras, y para ello se cambiasen algunos puntos de las normas subsidiarias del Plan Urbanístico municipal. Grupo Eibar hizo un preinforme sobre el impacto medioambiental que generaría el vertedero, que fue aprobado en el Ayuntamiento

**18 de Mayo 2007:** Aprobado por unanimidad en Pleno del Ayuntamiento la modificación puntual de las normas subsidiarias para clasificar como sistema general de Infraestructuras en dicho paraje de Zuberri.

Así, dieron vía libre para poder construir allí dicho vertedero. En el plazo de un mes este cambio será definitivo por parte de la Diputación.

**El Ayuntamiento constituido en Junio del 2007, decidió revocar esta decisión del 18 de Mayo sobre la norma subsidiaria.**

**17 de Julio 2007:** pasa por la comisión informativa y se aprueba en Pleno del Ayuntamiento revocar el cambio puntual en las normas subsidiarias. Así se le hizo saber a la Diputación. A finales de Julio Diputación devolvió el expediente al Ayuntamiento.

# Hirigintza

## ISURTEGIAK

### Erabaki honen zergaitia

Areition Beteartek hondakin ez arriskutsuen Iruatxetako isurtegi lanak be-rehala hasiko ditu. Zuberri bigarren isurtegia izango litzateke herriko beste puntan, **Mallabia eskualdeko isurtegia** izatea onartu behar dugu?

Zuberriko isurtegia **Artibai ibaiaren iturburuaren** inguruan kokatuta dago, bertan beste erreka bat sortzen da eta isurtegiak bere ibilbidea aldatzea eka-rriko luke. Lur azpiko isuriaren azterketarik ez da egiten ingurumen txostenean eta hauek garrantzitsuak izan daitezke lurrazpiko ur poltsei eta errekei da-gokienez, besteak beste. Artibai ibaiaren **ingurua LIC bat da**, babestutako ingurunea hain zuzen.

**61.961,46 metro** karratuko hedadura izango luke bertan egin nahi duten isurtegiak eta hau ez da babes neurri bat ingurune babestu bati dagokienez.

Bertakoa, **era naturalean sortutako basoa da**. Mallabian horrelako baso as-akorik ez dago, gehiengo landatutakoa bait da.

Artibai ibaiaren inguruko fauna ezberdinen artean **europar bisoia aurkitzen da (babestutako espeziea, desagertzeko zorian dagoena), iberiar igela (interes bereziko espeziea) eta Schreiber muskerra edo musker berde-beltza (hau ere interes bereziko)**. Hauetaz aparte hainbat espezie ezberdin mugitzen da ingurune horretan, basoaren aberastasunaren adierazgarri.

Lur hauek Trabakua gainean daude. Grupo Eibarrek aurkeztutako txostenean, **lur hauek interes paisajistikorik ez dutela** azaltzen du. Enpresa honek erosi dituen lur horiek, Udaletxea behartuta dago lur horietan isurtegia egitera, txostenean ez baitu beste aukerarik eskaintzen. Berez, behartuta badago ere txosten hau aurkezterakoan beste lur alternatiba batzuk ematera.

Informazio gehiago banatuko da gaia sakonago aztertutakoan.

#### ERANSKINA:

Grupo Eibarreko ordezkariak udaletxean helegitea aurkeztu zuten, Udalean adostutako arau subsidiarioen aldaketa puntualen kontra. Hilabete bat pasatuta Udalak ez die erantzuten beraz, suposatuta behar dute Udalak ez duela hartutako erabakian atzera egiten.

Zuberriko Isurtegi honek ez du Foru Aldundiko Ehiza eta Arrantza, Baso Sai-leko baimenik. Ur partzuergoak fax baten bidez bidali zuen Udaletxera bere oniritzia baina baldintzapean. Azken oniritzi hau ez zegoen saileko arduraduna-kin sinatuta eta Udalean bere garaian ez zitzaion sarrerarik eman.

Udala bere lege aholkularitzarekin elkartu zen irailaren hasieran eta bertan garbi ikusi zen auzia epailetara joango zela, isurtegia egingo ez dela garbi geratuaz.

### Situación del vertedero

Los terrenos de Zuberri se sitúan **cerca del nacedero del río Artibai**, donde nace otro río. Este vertedero obligaría a **cambiar su rumbo**.

No se ha hecho ningún estudio sobre las **aguas subterráneas** existentes en la zona. Los alrededores del Artibai son terrenos considerados LIC (espacio protegido).

El **bosque** existente en el lugar ha sido **creado de manera natural**, y en Mallabia no hay muchos de este tipo y que la mayoría de los bosques son plantaciones.

Entre la fauna existente en los alrededores del Artibai es destacable la presencia del **visón europeo (especie protegida en peligro de extinción)**, la **rana ibérica** y el **lagarto verdinegro (especies de interés especial)**, también podemos encontrar otras muchas especies que hacen de dicha zona un lugar de especial protección.

Betearte comenzará en breve las obras en el vertedero de Iruatxeta para residuos no contaminantes. Zuberri sería el segundo vertedero en el otro extremo; debemos aceptar que Mallabia sea el vertedero de la comarca?

Estas tierras de Zuberri están sobre Trabakua; el informe del Grupo Eibar explica que estas tierras no tienen interés paisajístico.

Al comprar nuevas tierras, el Grupo Eibar obliga al Ayuntamiento a construir el vertedero en ese mismo lugar y aunque el grupo Eibar está obligado a ofrecer otras alternativas, otros lugares donde situar el vertedero, no da ninguna otra alternativa.



## ETXEBIZITZA TASATUAK

Gure udalerrian hainbat etxebizitza berri egitekoak di-rela jakinarazi zen irailean bando baten bitartez. Ohar horretan udalak egin asmo zuen inkesta baten berri ere izan genuen, gure herrian etxebizitzei dagokienez ze be-harrizan dagoen jakiteko informazioa batzeko helburua zuena. Lerro hauetan inkesta bete zutenen nahien arabe-ra ateratako emaitzen berri ematen saiatuko gara. Emaitza hauen arabera saiatuko gara Udaletik etxebizitza berri hauen eraikuntzaren ildoak markatzen.

#### INKESTA:

#### NOLAKO ETXEBIZITZA NAHI DUGU?

**Encuesta: ¿Qué tipo de vivienda queremos?**

Inkesta bete zutenen %92,6 mallabitarrak izan ziren edo Mallabian erroldatuta daude, gainontzekoak Durango, Mendara eta Ermuko herritarrak izan ziren.

Etxebizitzaren zergatiaz galdetuta

%36,8ak independentzia nahi duela adierazten digu

%19,3ak etxebizitza desegokia edo txikia duela

%12,28ak alokairuan bizi dela eta jабedun nahi duela izan

%10,5ak etxebizitzarik ez duela

%10,5ak igogailu ezak

Hauek dira etxebizitza berri baten nahiaren arrazoirik sendoenak.

Etxebizitzaren ezaugarriei dagokienez

70 m<sup>2</sup>-koa %23,08ak nahiko luke

80 m<sup>2</sup>-koa % 30,77ak

90 m<sup>2</sup>-koa %19,23ak.

Bi bainugelarekin %75,47ak

Hiru logelarekin %71,7ak

Gehiengo zabal batek bere etxea ganbara eta garajearekin nahi du.

Behe solairua eta bi pisurekin %8,33ak aukeratzen du

Behe solairua eta hiru pisurekin %29,17ak.

Galdera honetan %62,5ak ez du erantzuten edo berdinduz zaiola dio.

Salneurria

120.000€ ordainduko luke %9,52ak

150.000€ %26,19ak

210.000€ %14,29ak

240.000€ %9,52ak.

Behin Mallabia I pilotalekuaren berritze lanak amaituta, aldizkari honetan doakizue pilotalekuari buruzko hainbat informazio. Hasiera batetan abuztuan, Andra Mari jaietan inauguratzeko asmoa zegoen arren, argindarraren postearen arazoek, atzerapenek, karrajoaren gora beherek, azken momentuko aldatetek eta abarrek, azaro-arte luzatu zurten inaugurazio data.

#### Pilotalekuaren datu batzuk:

- 36 m luze eta 10mko zabalera du kantzak
- 5,35 mko zabalera kontrakantzak
- Probalekuak 33,65mko luzeera eta 9,10mko zabalera
- Karrajuak 24mko luzeera eta 4,5mko zabalera
- 500 pertsona ingururentzako tokia du

Probalekua eta pilotalekua bereiztuz, erdi erdian, gradak daude eta azpian bi aldagela, taberna eta biltegi bat. Sarrera ondoan, aurreko fatxadan bi solairutako eranskina dauka: beheko solairuan, txarteldegia, "kantxe-roaren" gela eta pilota taldearentzat bulegoak egin dira; eta goiko solairuan, gimnasio txiki bat joango da, non gradetatik jarri zaion sarrera.

Aurrekontuari dagokionez guztira 1.623.503,91€-tako da. Egin diren moldaketa eta aldatetekin, ziur aski, aurrekontua gehitu egingo da. Berrikuntza lan hauetan BBK eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza, bien artean, 300.000€-tako ia izan da.

Urtean zehar eta idi probarik jokatu behar ez denetan, probalekua estalita egongo da, horrela, kirol eta kultur ekintza eta ikastaro ezberdinak egiteko erabili ahal izango da: dantzak, aerobika, umeentzako jolasak, herri bazkari eta afariak, jai ezberdinak eta abar.



## MALLABIA I pilotalekua

*El frontón Mallabia I empezó a remodelarse durante el 2006 y aunque se creía que estarían concluidas las obras para las fiestas de Andra Mari de este año, debido a diversos problemas, se atrasó la fecha de la inauguración hasta noviembre.*

*La cancha y el probaleku están divididos por las gradas. Debajo de las gradas se encuentran los vestuarios, un almacén y el bar. La taquilla, el cuarto del canchero y las oficinas de la escuela de pelota se encuentran al lado derecho de la entrada. Encima de estos locales se instalará un pequeño gimnasio.*

*El presupuesto ha sido de 1.623.503,91€, pero que se incrementará debido a los cambios que se han hecho. BBK y el Gobierno Vasco han aportado una ayuda de 300.000€ entre las dos entidades.*

*Durante el año, el probaleku estará tapado para que así se lleven a cabo diferentes actividades tanto culturales como deportivas.*





MALLABIKO  
UDALA